

Tokiko enplegua sustatzeko 3R programa

COVID-19aren ondorioz lana galdu duten pertsonak berrorientatzea eta pertsona horiei beste lan bat ematea, Behargintza enplegu eta tokiko garapenerako zentroen eta toki-erakundeen bidez

Helburua	Behargintza enplegu eta tokiko garapenerako zentroentzako eta toki-erakundeentzako laguntzak, COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz lanik gabe geratu diren pertsonen lanera itzultzen laguntzeko jarduketak egin ditzaten.
Erakunde onuradunak	<p>A) Udal edo eskualdeetako Behargintzak enplegu eta tokiko garapenerako zentroak</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. "BERMEOKO UDALA": Bermeo, Mundaka eta Sukarrieta Behargintza Bermeo 2. "ERANDIOKO UDALA": Erandio. Erandio Behargintza 3. "ERMUKO UDALA": Ermua eta Mallabia. Ermuko Udala 4. "GALDAKAO UDALA": Galdakao. Galdakao Behargintza 5. "GERNIKA-LUMOKO LANBIDE-EKIMENAK ZENTROA" Gernikaldea: Gernika Lumo, Arratzu, Ea, Busturia, Errigoiti, Muxika, Gautegez-Arteaga, Mendata, Morga, Ibarrangelu, Forua, Murueta, Nabarniz, Ajangiz, Elantxobe, Ereño eta Kortezubi. Gernika-Lumo Lanbide Ekimenen Zentroa 6. "GETXOKO UDALA": Getxo. Getxolan 7. "LEIOAKO UDALA": Leioa. Leioa Behargintza 8. "PORTUGALETEKO UDALA": Portugalete. Portugalete Behargintza 9. "SANTURTZIKO UDALA": Santurtzi. Santurtzi Behargintza 10. "SESTAOKO UDALA": Sestao. Sestao Behargintza 11. "BASAURI-ETXEBARRI BEHARGINTZA SL" Basauri-Etxebarri: Basauri eta Etxebarri. Basauri-Etxebarri SL 12. "BEHARGINTZA TXORRIERI SL": Loiu, Lezama, Larrabetzu, Sondika, Zamudio, Derio. Txorrierri SL 13. "BILBAO EKINTZA": Bilbo. Bilbao Ekintza Epele 14. "ENKARTUR": Gueñes, Galdames, Alonsotegi, Gordexola, Balmaseda, Sopuertaa. ENKARTUR 15. "INGURALDE": Barakaldo. Inguralde 16. "LEA ARTIBAICO GARAPEN AGENTZIA SA": Berriatua, Etxebarria, Ispaster, Markina-Xemein, Lekeitio, Ondarroa. Lea-Artibai Garapen Agentzia SA 17. "DURANGOKO MERINALDEAREN MANKOMUNAZGOKO BEHARGINTZA": Abadiño, Atxondo, Durango, Elorrio, Garai, Lurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar. Durangoko Merinaldearen Mankomunazgoa 18. "MEATZALDEKO BEHARGINTZA" Meatzaldea: Muskiz, Abanto eta Zierbena, Zierbena, Ortuella eta Trapagaran. www.behargintza-zm.com 19. "MUNGIALDEKO BEHARGINTZA SL": Mungia Mungia Behargintza SL 20. "URDUÑAEDERRA URDUÑA EDERRA SL": Urduña. Urduñaederra Urduña Ederra SL 21. "URIBEKOSTAKO BEHARGINTZA SL": Barrika, Berango, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela, Urduliz. UrIBE Kosta Behargintza SL <p>B) Aurreko letran definitutako Behargintza enplegu eta tokiko garapenerako zentroetako batean sartuta ez dauden Bizkaiko Lurralde Historikoko mankomunitateak edo udalak, baita haien mendeko edo haien lotutako erakunde autonomoak, enpresa publikoak edo beste erakunde batzuk.</p>
Diruz lagundu daitezkeen egitateak	<ul style="list-style-type: none"> • Berrorientatzeko eta birgaitzeko proiektuak egiteagatik emango da dirulaguntza, haien xeda bada COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz lanik gabe geratu diren Bizkaiko pertsonak berriro lan-merkatuan sartzea. • Aurkezten diren proiektuek bi zerbitzuak izan beharko dituzte nahitaez, berrorientatzekoa eta beste enplegu bat ematekoa. • Oinarriko gaitasun digitalei buruzko prestakuntza-jarduerak antolatu ahal izango dira; gehienez, 60 ordu partaideko. • Proiektuak alarma-egoera amaitzen denetik 2021eko martxoaren 31ra bitartean egin beharko dira • Erakunde bakoitzeko ezarritako muga: 100.000,00 euro.
Araudia	<p>Bizkaiko Foru Aldundiaren 52/2020 Foru Dekretua, ekainaren 9(e)koa. Honen bidez, tokiko enplegua sustatzeko 3R programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira, Behargintza enplegu eta tokiko garapenerako zentroen eta toki-erakundeen bidez, COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz lanik gabe geratu diren pertsonak berrorientatzeko eta pertsona horiei beste enplegu bat emateko neurriak martxan jartzeko dirulaguntzak emateko.</p> <p>Diru-laguntzak emateko, norgehiagoka prozedura erabiliko da, hainbanaketa eginaz.</p>

Tokiko enplegua sustatzeko 3R programa

COVID-19aren ondorioz lana galdu duten pertsonak berrorientatzea eta pertsona horiei beste lan bat ematea, Behargintza enplegu eta tokiko garapenerako zentroen eta toki-erakundeen bidez

Epeak	<ul style="list-style-type: none">• Ekintzak egiteko epeak: alarma-egoera amaitzen denetik 2021eko martxoaren 31ra bitartean.• Eskabideak aurkezteko epea eta era: Eskabideak aurkezteko epea 2020ko ekainaren 18an hasiko da, 8:00etan; eta 2020ko uztailaren 17an bukatuko da, 13:30ean; Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez.
-------	--